

Funtsezko baliabideak

Funtsezko baliabideetan gure taldeko bakoitzak edukiko dituen eginbeharrak azalduko ditugu. Bakoitzak ditugun ezagutzak kontuan hartuta banatuko ditugu lanak, eta ikasi beharrezkoak izango ditugun abileziak baita ere zehaztuko ditugu.

Proiektuaren hasieran, hau aurrera eraman ahal izateko, denok diru kantitate bat jarri beharko dugu. Modu hontan proiektua funtzionatzen jartzeko beharrezkoak ditugun hainbat baliabide ordaindu ahalko ditugu. Baliabide hauen adibe bezala gure produktua ekoizteko eta biltegitratzeko behar dugun lokal bat jarri dezakegu, lokal honen ura, gasa eta bestelakoak ordaintzeko beharko genuke dirua.

Horretaz gain, gure produktuak ez du diseinu bakar bat izango eta hainbat diseinu mota, pertsonalatuak geihenbat, sortu ahal izateko imaginazioa edukitzea ezinbesteko zati bat izango da. Ala ere, imaginazioan eduki ahal diren diseinuak egi bihurtzeko marrazketa teknikoan ezagutza eduki behar da, hauek fisiko bihurtuko dituzten makinaren ezagutzaz gain. Marrazketa teknikoan esperientzian duten pertsona bat baina gehiago dugu taldean, zati hortan ez genuke inongo arazorik izango. Ala ere, beharko ditugun makinak nola funtzionatzen duten eta hauek nola programatu ikasteko taldeko guztiek ikastaro bat hartuko dugu. Lan hontaz Aratz arduratuko da geihenbat, baina edozein arrazoigatik ez balitz posible izango berak lana egitea, denok edukiko genuke makinaren funtzionamenduak jarraitzeko ezagutza minimoa.

Gainera, webgune bat nola sortu eta kudeatu ikasi beharko du taldeko baten batek. Hontaz Julen arduratuko da, hainbat informatika klase jasoko ditu eta gure interneteko presentzia kontrolatzea bere esku egongo da. Lan oso garrantzitsua izango da, izan ere, gure denda fisikoa dagoen herritik kanpora begira sortuko dugun webguneagatik eta egingo dugun propagandagatik ezagutuko gaituzte bakarrik eta jarriko dugun aurpegi hau egokia izan ahal izateko ezagutza hau beharrezkoa izango dugu.

Azkenik, diru kontuak eramateko norbait beharko genuke eta Iker lan honen buru jartzea egokia iruditu zaigu. Enpresako zati garrantzitsuenetakoa da diru-sarreraren eta diru-irteeraren erregistro bat eramatea eta Ikerrek hau egiteko gaitasuna duela badakigu, ekonomian eta matematiketan duen ezagutzaren jakinaren gainean baikaude. Horregatik, Ikerrengan jarriko dugu konfiantza lan hontarako.